

# 07

Zamudio

Lezama

Larrabetzu

Morga

Muxika

Gernika

Forua

Murueta

Busturia

Sukarrieta



# Zin bidea

Mundaka

Bermeo



# 07

## **Zin bidea**

BI 631, BI 737, BI 3713, BI 2713, BI 2121, BI 2235 eta BI 3101. errepideetatik doa bide luze hau. Gaztelako erregeek –Bizkaiko jaun legez– edo beren ordezkariak Bilbotik Bermeora –tartean Goikoelxea eta Gernikatik igarota– egiten zuten ibilbide historikoaz ari da bide honen izena. Egin-eginean ere, bizkaitarren foruak mantendu edo berresteko zina egiten zuten toki horietako elizetan, tronura heltzen ziren bakoitzean.

Bermeon ez ezik, Gaxtelugatxeko labarretan ere amai liteke eguna, ozeanoaren gainean.

## *Aurreko orrialdean:*

*Goikolegea. Eliza zaharbertitzean luzituaren azpian Berant Erdi Aroko pinturak azaleratu ziren. Irudi apatzak eta xaloak dira, alegorikoak ere bai: gizakiak alegiazko animalien gainean dabilta...*

## *73. orrialdea, goian:*

*Zamudioko dorretxeak ezaugarri berezi bat du: albo batean arrapala bat dauka solairu nagusiraino. Solairu itxia da, su-arma astunekin defenditzeko modukoa.*

## *73. orrialdea, behean:*

*Zamudio. San Martin eliza errenazentista. Hiru nabe dauzka, zarpeatuak, eta haietan igeltserotza-gangak, zutabeek eutsiak (1748). Hainbat mendetan sabaia egurrez estalia izan omen zen.*

## Zamudio

Txorierrri haraneko landa-elizateetako bat dugu Zamudio, eta bertan ezarri zen elizbarrutiko apaizgaitegi zaharra, jaitsi ahala aurrez aurre ikusten dena; bertan kokatzen dira, gainera, teknologi parkea, industrialde bat, lantegiak eta abar. Ikuspegia, beraz, erdi landatarra eta erdi industrial da, elizatearen erdigune historikoa ezabatu samarrik gelditzen delarik.



## Cadalso baserria

Ibilbidearen ezkerretara. Cadalso baserria oso etxe esanguratsua da, tipologiari dagokionez, eta ez du merezi egungo kontserbazio egoera kaskarra. Gotikoaren amaieratik zegoen taxaturik euskal baserriaren silueta berezia, erdian ataria zuela, eta egitura gelditzen zen zehazteko: gehienbat egurrezkoa izango zen, haritzeko zutoin bertikal handietan bermatua –teilatuen benetako euskarria–; XVI. mendean gauzatu zen. Cadalso 1550 inguruan data daiteke; «Las cartas marruecas» literatur lanaren egilea kideen artean izango zuen familiaren oinetxea da.

## Arteagako multzoa

Cadalsotik, Zamudioko gotor-dorrearen eta elizaren bolumenak ikusten dira. Gisa honetako elkarketak ez dira ezohikoak, eta Erdi Aroko parrokiaren eta patronatu partikularren arteko interdependentzia adierazten dute. Zamudioko kasuan, patrioak abizen bera du, eta elizaren aurrean eraiki nahi izan zuen gotor-dorrea.

**Zamudioko gotor-dorrea** eraberritu egin da barrutik, kultur etxea izateko. Honako hau du bereizgarri nagusia: sarbide garaia, eskailera gotortu, itxi eta defendatzeko modukoa duena, barrutik armak erabiltzeko zuloak baititu. xv. mendeari bete-betean dagozkion defentsa-baliabideak dira.

**Done Martie eliza** errenazentista da, zutabedun areto eliza: sei euskarri ditu, eta haien gainean, nerbiodunak barik, xviii. mendeko adreiluzko gangak



bermatzen dira. Horrengatik dira meheak euskarriak, nasaitasun airea areagotzen dutela. Koruko 1545eko kartelak ez du eraikin osoa datatzen, bi portaleak molde gotikoan eginik baitaude, ia mende erdi bat lehenago. Egur polikromatuzko eta homogenotasun handiko hiru erretaulak betetzen dute presbiterioa. Izaera rokokoa eta taxu ahur eta ganbilekoak dira, uhin efektua sortzen dutela; Manuel Morazak egin zituen erretaula hauen mazoneria aberatsak, 1772an. Polikromia urreztatua Antonio Ximénez Etxabarriarena da, eta sustatzailea Malpicako markesa, bera baitzen orduan Zamudioko oinetxearen jabea. Gerónimo de Argos irudi-egileak egin zituen eskulturetako batzuk.

**Kristoren erretaula**, ezkerreko horman: titularraren irudia nabarmentzen da, 1300 inguruko tailla gotikoa.

Presbiterioko **ataka**. Estilo rokokoa egindako forja-lana, patrioen armarritxo ugari dituena –koruko oihal handian ere errepikatzen dira–. **Aitorlekua**: arotzeri-lan rokokoa fina, Juan Iturburuk egin; balio handiko altzaria da.

## Lezama

Elizate historiko honetan landa-ikuspegia da nagusi, nekazaritza-lurrek eta baratzeek inguraturiko baserriak. Andra Maria eliza dugu erdigune administratiboaren buru.

## Andra Maria eliza

Eraikin konplexua da, erdiko nukleo gotikoari xviii. mendeko bi albo habearte barroko eranstearen emaitza. Erreformen garaikoak dira portalea eta dorrea –1730 ingurukoak–. xix. mendean elizatik kanpo jarri zen hilerria, egurrezko elizpearen ondoan.

**Erretaula nagusia**, barrokoa, 1739an hasi ziren egiten Bernarredo del Anillo erretaula-egilea eta Miguel del Mazo eta Manuel Azebo irudi-egileak.

## Larrabetzu

Landa-udalerrri honetan, bi izaki juridiko batu ziren aspaldi: hiribildu bat

(Larrabetzu) eta elizate bat (Goikoelexea).

#### Andra Maria eliza

Mendeetan zehar, bata besteari erantsitako etxeek osaturiko kale labur bat besterik ez zen izan hiribildua –1376an fundatu zen–; irteeraren ezkerretara Andra Maria eliza zuen –eta du– lerrokaturik, Ventura Rodríguez akademikoak 1777an sinaturiko plano berriekin zimenduetatik berregina. Bizkaiko eliza neoklasikorik zaharrena da. Arestian errestauratu da.

**Erretaula nagusia.** Burualdean dago; estilo neoklasikokoa eta marmol itxurakoa da. Juan Bautista Belauzaranekek marraztu zuen 1815ean.

Burualdearen ezker aldeko kapera likatatarrena izan zen; haien jauregia fatxadako margolan rokokoengatik nabarmentzen da. Bi mendetan zehar **Santa Luziaren martirioaren oihala** gorde zuen, gaur egun Bilboko Eleiz Museoan dagoena: Luis Pareten margolan rokoko fina da.



#### Goikoelexeako multzoa

Done Meteri eta San Zeledon Kalagorriko elizbarrutiko martiri eta zaindarien babes zerutiarraren menpean dago. Bizkaiko elizateen osagai topiko asko batzen dira hemen: eliza, abadetxea, gurutzea, eskola, hilerria, etxe bakartuak eta abar.

«Zin eliza» da Goikoelexeakoa, erregeek beren bidaian bizkaitarrekin konplitu behar zuteneko puntuetariko bat. Habearte garai eta luze bateko eraikina da, molde gotikoko gurutze gangaz estalia. Mendebaldeko fatxadak dorre sendo bat du aurrean atxikia, goiko aldea adreiluzkoa duena. Euskarri ezarrien formetan, gangako nerbioen diseinu eta sekzioan, edota burualdeko hormako argi-zuloan antzematen zaio gotiko berantiarraren izaerari (1515 in-gurukoa da). Dorrea XVII. mendekoa da. Elizpearen ondo-ondoan hilerria dago, gerora ere berreratua.



**Erretaula nagusia.** Egur urreztatuzko altzari txikia da, taxu zuzenekoa: pedrelaren gaineko hiru kale eta hiru solairuetan, arta handiz landutako euskarri, txanbrana eta doselak ditu. Erretaula-hobietan Kalagorriko martirien istorioen erliebeak eta eskultura exentuiak daude. 1520 inguruan data daiteke, eta hispaniar-flandestararen grazia du.

Duela zenbait urte, garai bereko simbolismo konplexuko **horma-margolan** lineal batzuk agertu dira burualdearen albo hormetan.

**Abadetxea**, kubikoa eta estilo neoklasikokoa, 1799an dataturik dago; eta bertako **Iurretagoiena etxetzarra** mende erdi bat geroagokoa da.

Plazaren sarreran harrizko **kalbario** bat dago, estilo errenazentistakoa: aurrealdean gurutzefikaren irudia dauka, eta atzealdean Andra Mariarena eta 1574ko data.

#### **Astorekako baserriak**

Astorekako bide gurutzean, Aretxabalaganako aldaparen erdian eta errepidearen bi aldeetan, tipologia bereko baserri bana dago. Honako ideia hau azpimarratzen dute: arku beheratuko ataripe handia duen nekazari etxea kodeturik dago eta XVIII. mendekoa da; bizkaitar baserri motarik topikoena da.

#### **Morga**

Aretxabalaganaren eta Gerekizen arteko inguru aldapatsu batean kokatzen da elizate hau. Beheko ibarrean dauka erdigune historikoa –Meakaur–, eta zerbitzu nagusiak, haien artean jatetxe batzuk, Andra Mari auzoan eta Gerekizko bide gurutzean bertan.

#### **Muxika**

Beste landa-elizate bat da, Ugarteko Done Bikendi elizaren inguruan garaturikoa, haranean sarturik.

#### **Done Bikendi Martiria eliza**

Abadetxe zaharrarekin eta udaletxearekin batera osatzen du plaza eta multzoa.

Eraikin handia da, eta gurutze latin-darreko oinplanoa dauka: hiru tarteko habearte bakarra du, burualde errektangeluarra eta gurutzadura-gorputz besoduna. Jatorriz oso zaharra da, lehenagoko tenplu erromaniko baten hondarrak gordetzen baititu atarian –tenplu baxua izango zen–. Adreiluzko gangak eduki arren, asko sendotzen da estribuak baliatuz. Pedro de Miengok egin zuen dorrea 1652an, eta 1760an zabaldu behar izan zen Frai Antonio de Manzanarezen proiektuarekin.

Burualdean hiru erretaula daude: **arimena, nagusia eta San Antonio Paduakoarena**; rokokoaren hausturaren adierazgarri onak dira hirurak, Juan Iturburuk 1781ean marraztuak. Gerónimo de Argos eta Manuel Azeboren artean egin zituzten taillak. **Organoa** Josef Antonio Albizua organo-egilearena da, 1760koa.

#### **Igertu baserria**

Errepidearen ezkerrean dago, Vistalegreko bide gurutzera heldu baino apur bat lehenago. Oso ezaguna da bere fatxadaren irudia, eguzkitan lehortzen jarritako piper kordaz beterik dagoela. Kronologiaz jabetzea da interesgarriena: XVII. mendekoa da, ezkaratz dintelduak adierazten duen legez, habe horizontala harrizko zutabe klasiko baten gainean bermatzen dela.

#### **Gernika**

Okaren ibar gozoan hainbat elizate sakabanatzen dira, haranaren hondotik ez oso urrun: Lumo, Ajangiz, Arratzu eta abar. Gernikako hiribildu urbano eta oso jendetsuak hartzen du erdigunea (1366ko forua); bere bazterretako batean dagoen haritzaren azpian biltzen izan dira bizkaitarrak, antzina-antzinatik, eguneroko arazoak konpontzeko. Hedaduraz, euskaldun guztien askatasunen ikurra da Gernikako haritza, Gaztelako erregeen zinaren lekukoa, askatasun eta foru horiek begiraturiko zituztela zin egin behar baitzuten, Bizkaiko Jaunaren titulua izan nahi bazuten.

#### **74. orrialdea, goian:**

**Muxika. Igertu Baserriak XVII. mendeko euskal baserrien antza du: bebarruak harrizko ateburua du, eta erdiko zutabeak ere harrizkoak dira.**

#### **74. orrialdea, behean:**

**Gernika. Zin-tribuna, haritzak babestua, sinbolo bat da, erregeak euskaldunen foruak eta askatasunak errespetatuko zituela hitzematzen zuelako.**

**Batzar Etxea**

Haritz baten azpian egiten ziren zinak. Haren ondoan eraikin multzo bat dago gaur egun: Batzar Etxea da nagusia, Eliza Zaharreko Andra Mariaren Erdi Aroko ermitaren lekua hartu zuena; bertan meza entzuten zen batzarrak hasi baino lehen, paperak gordetzen ziren, eta, eguraldi txarra eginez gero, batzarkideak biltzen ziren.

Amaitu gabeko eraikina da Batzar Etxea, hegaletako bat falta baitu, armategiarena, alegia. Bai eraiki zela, ordea, Mendebaldekoa, artxiboa. Modu orekatuan pentsatu ziren biak, patioen bidez tenplu-parlamentutik bereizirik. Oinplano eliptikoa du, eta batzarkideentzako harmailez eta lehendakaritzarako absideaz horniturik dago; azken honek Andra Mariaren erretaula eta irudia izan zituen aspaldi.

Harmailen gainetik Bizkaiko jaunen erretratu sail bat dago; XVII. mendean margoturiko eta hainbat bider errestituriko oihal sorta da, aretoaren solemnitatea areagotzen duena.

Haritzaren itzalpean zin egiteko tribuna dago, antzinako batzarrak gidatzen zituzten mandatarien egurrezko oholtzaren lekuan. Bertan egiten zuten erregeek zin solemnea. Eskalan eginiko eraikuntza da, sakonera gutxiko ataria, Agriparen Erromako panteoiaren fatxada gogora ekartzen duena.

Gernikako multzoaren programa, bere konplexutasunean, Antonio Etxebarria akademikoaren ariketa neoklasiko bat da, 1827koa. I. gerra karlistak programa amaitzea eragotzi zuen.

**Alegria (edo Montefuerte) jauregia**

Batzar Etxetik pauso gutxi batzuetara, 1733an amaituriko jauregi barroko hau dago: jabegoa burdin hesiaz itxita duen jauregi bakartua da. Kubikoa eta hiru solairukoa, Euskal Herria Museoa izateko egokitu da, eta bere parke erromantikoa –Europako Herrien Parkea– aisialdirako gunea eta, aldi berean, aire zabaleko eskultura-museoa izateko. Eduardo

**Orrialde honetan:**

*Gernika. Santa Maria eliza. Zutabe joniko luzeek garaiera bereko hiru nabe zedarrizten dituzte esparru errenazentista eta ireki batean. Zutabe-sala ikusgarria.*

**77. orrialdea:**

*Gernika. Europa Parkea. Eskultura. Moore lan abstraktuez ere baliatzen da bere «humanismoa» adierazteko, sarritan amaren babesa simbolo gisa erabiliz.*

Txillidaren hormigoi eta burdinazko lan bat –**Gure Aitaren Etxea**– eta Henry Moore ingelesaren brontzezko lan bat –**Irudi Handia Aterpean**– kokatu ziren bertan. Azpimarratzekoa da, era berean, parkeko landare espezieen katalogoa.

#### **Andra Maria eliza**

Bizkaiko garrantzitsuenetakoa da bere generoan; eraikin honek, gainera, bere kasuistika erakusten du, egin ahala birziklatzen den obra baita. xv. mendearen erdialdean estilo gotikoko eliza bat marraztu zen (burualde triforioduna, portaleak eta abar), eta hurrengo mendean lekua antolatzeko molde errenazentista modernoago batera lerratuko zen: garaiera bereko hiru habearte, zortzi zutabe zilindriko, joniko eta berriren gainean. Bizkaiko zutabedun elizarik ikusgarrienetako bat izan zen emaitza: hiru habearte eta bost tartekoa, burualde hirukoitz poligonalaz hornitua, eta nerbio gangaz estalia. 1660 amaituko zuten estalkia Antonio Ortiz de Colinak eta Mateo del Ríok.

Portale aberatsa da nagusia, ezkerraldekoa: gotikoa da, ate-zango zutabetxodunen gaineko arkibolta zorrotzez osatua; mainelak bananduriko bi sarbideren gainean tinpanoa dauka, Andra Mariaren tailla erakusten duena. Santu eta santa zaindarien ikono sorta zabala du, kalitate apaleko tailla-egile batek landurikoa. Portalean, gainera, dataren idazkuna dago: egilea, Antso Enparan, eta urtea, 1449, aipatzen ditu.

Gabriel Kapelastegik egin zuen kanpai horma, 1775ean. **Done Petri erreteula:** eskuinaldeko kapera batean dago; Juan Azkunaga eskultore eta erreteula-egilearen ariketa klasizista da, 1643koa.

#### **Forua**

Gernikako itsasadarraren ondoko landa-herri atsegina.

#### **Andra Maria eliza**

Eraikin errenazentista da, askoz ere geroago, 1803an, zutabedun eliza

bilakatuko zena: aldatu eta lekune bateratu hori eratzeko, teilapeari eusten zioten zutoinen eta teilapearen beraren orde, zutabe klasikoak eta adreiluzko gangak jarri ziren, hurrenez hurren.

**Erreteula nagusia.** Salomonikoa eta estilo rokokoan egina; Juan Urkitza izan zen trazatzaile eta egilea –1754an–, eta Juan Munar eskultorea. Trofeo eta apaingarri militarrez zamaturiko salomonikoak dira interesgarriena, erretorika klasikotik oso urrun baitaude.

#### **Erromatar herrixka**

Erromatar arkeologian interesik duen bidaiariari urrats batzuk atzera egiteko gomendatu behar zaio, Elexaldeko muinora, k.o. i. mendearen erdialdeko aztarnategi bat aurkitzeko, bertan zazpi eraikinen zimenduak identifikatu ahal izango baititu. Erromatar «portus» zahar baten hondarrak dira. Elizatearen izenak berak zerikusia izango du kokaleku honen «forus» delakoarekin.

#### **Murueta**

Inguruko landa-elizateetariko beste bat da, herrigunerik gabea.

#### **Andra Maria eliza**

Muruetak ez zuen eliza propiorik izan 1847 arte, orduan eraiki baitzen gaur egun dagoena, Antonio de Goikoetxea akademikoaren planoak baliatuz. Bakarturik azaltzen zaigu, errepidearen eskuinaldean. Kareharri grisaz egina, oso bitxia da bere planteamendu erdiratua: kasko kupulaz estaliriko oktagonoko handi bat da, gurutze grekoaren besoak inskribaturik dituena; alaketan erreteuletarako exedrak ditu, eta angeluetan gune zirkularrak, sakristiarako, biltegirako eta eskaileretarako. Erabilitako molde neoklasikoa interesgarria da, oso bilakatua baita.

#### **Busturia**

Mundakako itsasadarraren eta muinoen artean hedatzen da elizate hau. Kalitate handiko habitata eskaintzen du, xix.





mendeko etxe burgesak eta baserriak nahasturik.

#### Andra Maria eliza

Bolumen handi eta trinkoa da: hiru tartetan banaturiko habearte bat, bederatzi giltzarriko izar gangez estalirikoa. Bereziki azpimarratzekoa da hareharrizko portalea, oso landua baita: sarbide bikoitza du, eta haren gainean tinpanoa; hori guztia inguratuz, «chochet»ez hornituriko konopio handi bat dago, eta alboetan landarez zamaturiko pilaretxoak. Ataripean babesturik dago, eta bertan 1842an dataturiko eguzki erloju bat dago irarrita.

1503 aldera eliza honetan lanean ari zen Antso Martínez de Arego. Data hori bat dator estiloarekin, gotiko berantiarrekin, alegia.

**Erretaula nagusia** handia eta neoklasikoa da. 1792an egindako berrerraketa baten emaitza dela dakigu; horretarako, lehenagoko tailla batzuk eta Josef Apraiz herriko mezenasek 1790 inguruan oparituriko Guadaluperen oihala baliatu ziren. Egitura handia da: gorputz bat eta atikoa ditu, pedrelaren eta zokaloaren gainean; ordena erraldoiko korintoar zutabe pareek markoztatzen dute kale nagusia.



*Orrialde honetan, goialdeko ezkerrean: Bermeo. San Frantzisko komentuko klaustroa. Arku zorrotzen errenkadak luzatzen dira lorategitik hormarteetaraino. Arkuen euskarri gotikoak, baketoidunak, kareletan finkatuta daude.*

*Orrialde honetan, goialdeko eskuinean: San Frantzisko komentuko klaustroa. Tailak urri dira, klaustroan ez baitago horretako aukera handirik.*

*Orrialde honetan, behean: San Frantziskoren komentuko klaustroa. Gangaziez estalitako lau hormartek erdiko lorategia estua inguratzen dute.*

#### 79. artikulua:

*Mundaka. Santa Maria elizak estilo gotikoa eta errenazentista elkartzen ditu. Bizkaiko beste inon ez bezala, toki berezi batean dago, Itsasadarraren ahoko gain atergabe batean finkatua.*



#### Sukarrieta

Itsasadarraren ahora hurbildu ahala, egoitza-erabilera da nagusi, lorategiz inguraturiko etxe burgesak han-hemenka barreiatzen direla.

#### San Andres eliza

Data aurreratua gorabehera, barroko ornamentu-gabetuaren moldean eginiko eliza da, proposamen modernoak barik: hiru tarteko habearte bakarra eta burualde karratua dituen tenplu soila da. Gabriel Kapelastegi harginak marraztu zuen 1787 baino zertxobait lehenago.

#### Mundaka

Etxe multzo trinkoak osaturiko herria da, taxu hautsiko kaleetan antolatuturik.



Formari begiraturik, hiriaren antza du, herriarena baino areago. Edozelan ere, erakargarritasun turistiko handiko portua da, eta etxe gehienak XIX. mendekoak dira.

#### Izaro uharte

Mundakako muinotik ederki ikusten da kareharrizko uharte hau. 1422az geroztik aita frantziskotarrak bizi izan ziren bertan, harik 1719an laga zuten arte, leku babesgabea eta pirata ingelesentzat –Drake tartean zela– jomuga erraza baitzen. Ederki ikusten dira, halaber, surf-zaleek egiten dituzten kirol ariketa arriskutsuak; Mudakako «ezker olatua» (**longest left**) guztiz ezaguna da surfen unibertsoan.

#### Andra Maria eliza

Miresgarriak dira hala eraikuntza-kalitatea nola kokalekuaren edertasuna: itsasoaren gaineko muino batean dago, bertatik itsasadarraren estuario aparta eta hareatzak ikusten direlarik. Oinplanoan hiru tarteko habearte zabala da, kontrahorma sendoez hornitua eta izar ganga nerbiordun ez alia. Portalea, oinaldean erdiratua, molde manieristako garaitza-arku bat da, eta zutabe joniko ildaskatuek markoztaturik dago. Fatxada honen edergarri eskultura-sail batzuk: Andra Mariaren Jasokunde-Koroatzearena, goiko leihoaren gainean, eta Done Petri eta Done Paulorenak alboetan.

Burualdeko obrak 1515 ingurukoak bide dira –estilo gotiko bilakaturik–, baina gainerako guztia, deskribaturiko portalea barne, mende bat geroagokoa da –errenazentista–. Jasorik dago Frai Lorenzo de Jorganesen diseinuak erabili zirela tenplua amaitzeko.

**Erretaula nagusia.** Estilo rokokoa egina, zuriz, urrez eta jaspez polikromaturik dago. Juan Urkitzak amaitu zuen, 1753an, eta titularraren tailla eta beste hiru eskultura Juan Munar garaikidearenak dira.

**Lamiarango Graziako Andra Mariaren erretaula:** burualdearen eskuinaldean

dago; XIV. mendeko tailla gotikoa da, Andra Maria eta Jesus Haurra gurtzen dituena. Altzaria rokokoa da, fantasia antikleasikoari egindako beste keinu bat.

Ezkerraldeko kaperan, panel batzuk errestauratu eta berriro muntatu dira: XVI. mendearen amaierako erretaula erromanista baten hondarrak dira, kalitate handikoak.

#### Portua

Arrantza-portua da Mundakakoa, bertan metatzen diren etxeek inguraturiko azpiegitura txikia. Arrantza-ontzi txikietarako baino ez du balio ia, arrantza-tresna tradizionalak erabiltzen dituzten «motorretarako»; hala ere, guztien gainetik dago, tipismo eta presentzia ikonografikoari dagokionez. Elantxoberekin batera, Bizkaiko arrantza-portu topikoa da Mundaka.

#### Bermeo

Hiribildu handi eta zaharra, Bizkaikoen artean; horrez gain, izen handiko arrantza-portua da, gaur egun merkataritza-atal bat ere biltzen duena.

#### Hirigintza eta harresia

Bermeon amaitzen da zin bide historikoa, Santa Eufemia elizan, portu zaharraren gain-gainean.

Erdi Aroko herria handia da, eta kale luzetan antolatutik dago, haietariko batzuk lauak eta besteak aldapsuak direla. Lau solairuko etxeek eraturiko habitat urbano trinkoak harlangaitzezko harresi garaien taxua gordetzen du, zati batez.

Hesian, Talaiarako irteeran, Done Joanek atea kontserbatzen da, XIV. mendeko sarrera garrantzitsua, igarobide zorrotza duena. Gainerako atek, sei, desagertu egin dira.

#### San Frantzisko komentua

Bermeoko sarreran, ezkerrean. Eliza eta klaustroa mantentzen ditu. Elizak burualde poligonalean amaitzen den habearte bakarra du, eta planifikatu



gabeko kapera pribatiboak alboetan. Egungo estalkia jatorrizko estalki gotiko ezkutua baino modernoagoa da. Jatorrizkoa zati batez galdurik dago. Erretaula rokokoa da, koruko aulkiak bezala.

Hormatxoen gaineko arku sail zorrotzez hornituriko lau korridoreko gune bikaina da klaustroa. Berreskuraturiko zolata eta egurrezko sabaiak ditu. Gorabehera eta erabilera ugariaren ostean, orain dela urte gutxi berreskuratu da. Garaikidea da, gotiko berantiarra.

San Frantziskoren fundazioa zaharra da, 1357koa, baina egungoaren obrak xv. mendetik xvi. erako igaraldian hasiko ziren, Muxika-Butroetarren leinuaren babesari esker. Bizkaiko klaustro alerik osoena da, eta oso obra duina.

#### **Santa Eufemia eliza**

Errestaurazioaren onurak bereganatu ditu, zenbait zolda galdu baitu. Lau tartetan banaturiko habearte bat dauka, eta bost horma-ataleko burualdea, zabalera osoa harturik. Aparailua, trazeriarik gabeko leiho zorrotzak, gangak eta eskuinaldeko albo sarbidea gotiko berantiarraren adierazgarri garbiak dira, xvi. mendearen hasierakoak. Dorrea da salbuespena (oinaldeari atxikitzen zaio, iparraldean): barrokoa da, eta Martin Uribeondok egin zuen Juan Iturburen planoak interpretatuz, 1782an.

Bermeoko Santa Eufemia elizaren balio historikoa ere kontuan hartzekoa da, «zin eliza» baita.

#### **Portu zaharra**

Ditxo zaharra da, babesleku ziur eta oraindik ere erabilia. Itsas usaina darion inguru honetan, etxe estu eta garaiak nabarmentzen dira, herriko bideekin kalezulo eta eskaileren bitartez komunikatzen direnak. Azpimarratzekoa da, halaber, harrizko pantailan egin eta arku beheratuaz hornituriko iturri errenazentista: Bizkaiko zaharrena da.



**8o. orrialdea:**  
*Bermeo. Gaztelugatxe. Antzinatik kostako ondoko harkaitz honek, bixia bezain ezagunak, San Joan Bataiatzailearen ermita eduki du ikur kristau gisa.*

**Orrialde honetan:**  
*Bermeo. Alde Zaharra. Erdi Aroko hiri harresitua egituratzen zuten kaleak, luzeak, gainezka geratu ziren, etxeak nahi eraikita. Behean portua, eta haren atzean Izaro uhartea.*



**Ertzila gotor-dorrea**

Bermeo itsasotik bizi da, lehen ere bizi izan den moduan. Bere kaleetan sartzea lortu zuten Berant Erdi Aroko bando leinu batzuek; hori da Ertzillatarren kasua: gotor-dorrea eraiki zuten itsasoari begira, portuko negozioak zaintzeko. Angelu irekiko oinplanoa du, eta hiru solairu. Kanpoaldean leiho zorrotz batzuk –oso errestauratuak, seguru asko– eta gezileihoak daude, eta barrualdean pilare exenttu poligonalak, estilo gotikokoak eta xv. mendearen amaierakoak.

Hainbatetan errestauratu da, baijan ez zaizkio kendu atxikirik dituen etxeak. Gaur egun Arrantzalearen museoaren egoitza da. Hain zuzen ere, Bermeoko biziaren subjektuari –arrantzaleari eta bere munduari– eskaintzen zaio museo monografiko bat dorre honetan.

Historiak ere aberasten du dorrea, Alonso de Ercilla jauna ere, La Araucana obraren egilea, leinu honetakoa izan baitzen.

**Andra Maria eliza**

Talaiako izen bereko eliza zaharragoa ordeztu zuen hiribilduaren erdian, lehengoa, labarraren gainean, amilduz joan baitzen xviii. mendean zehar. Haren ordez beste bat jarriz konpondu nahi izan zuen egoera Colon de Larreategi korrejidoreak –1783–, baina ez zen lortuko xix. mendera arte.

Azkenean, Silvestre Pérez arkitektoaren planoekin egin zen (1822): eraikin erraldoia marraztu zuen, soiltasun, gogortasun eta hoztasun hunkigarrikoa, erromatar tradizioetik berreskuraturiko moldeak baliatuz. Bizkaitar neoklasizismoaren metaforak eliza honetan du egoitza.

Etxe uharte errektangeluarra hartzen du; bertan inskribaturiko eraikin handia da eliza hau, eta haren baitan kupulaz estaliriko gune zentral eskergak gobernatzen du guztia: gurutzaren alboetako beso laburrak, kapera eta

biltegiatarako angeluak eta abar.

Oinaldean lau zutabe toskanarreko ataripea dago, dorreen artean sarturik –erromatar erretorika nabaria–.

Kanpoaldea amaitu gabe dagoela ematen du: kanpandorre bat falta du, baita programaturiko alboko atariak ere. Barrualdea, berriz, osorik dago, eta bereziki nabarmentzekoak dira erdiko tarte eskerga eta sinpletasun bolumetrikoa (antzinako formulen erabilera, alegia).

Exedretako lau erretaulak desegin bidean den neoklasizismoaren barruan sailkatzen da, eta Pedro Belauntzaranez marraztu zituen, 1869an; taillak, berriz, José de Alcoverorenak dira.

**Gaztelugatxera**

Fantasiatik ateratakoak diruditen paisaiak gustatuz gero, gomendatzekoa da bigarren mailako errepide bat hartzea –kostaldearen ondotik Bakiora doan BI-3101 errepidea, alegia– eta San Joan Gaztelugatxekoaren edertasunaz gozatzea.

80 m garai den uhartetxo honen gainean, gorabeheraz beteriko historia duen ermita dago, hainbat bider erasana eta berregina. Lekuaren edertasunaz gain, azpimarratzekoak dira haitzeko tradizioen magia eta Done Joanes Bataiatzailearen ahalmen sendatzailea. Barrualdean itsasoaren usaina dario guztiari: ikonografia, zin opariak eta abar.

